

Doinuak baino ez dirau Itzulpen tailer batean egon nintzeneko kronika

ANGEL ERRO

2018ko urriaren 19a: nire hamar poema bidali dizkiot ULri, Weideneko poesia itzulpen tailerrera. Ele bitan: euskaraz eta gaztelaniaz. Lau itzultzailek (kroaziar bat, bi aleman eta italiar bat), hiru poetaren (Clara Comas Barenys katalana, Lucia Aldao galegoa eta ni neu) poemak izango dituzte itzulgai.¹ Nireak dira bakarrak ele bitan jasoko ditugunak, euskararen *barneraezintasuna* dela kausa. Eztabaida interesgarria gehituko dio ariketari. Beste itzultzaileek (printzipioz hizkuntza erromantzeetan gutxi gorabehera molda daitezkeenak) bi bertsiio izanen dituzte eskura, emaitza triangelatzeko edo guztiz nahasteko aukera handiagoarekin.

2018ko urriaren 25a: ze polita aurkitu dudan berriro Leipzig. Berlin ere bai. Inoiz baino bakarrago bisitatu dut hiria. Errezitaldiaren egunean, bai eta bezperan ere, bizitza soziala arratsaldeko zazpietatik aurrera izan dut. Errezitaldia, ongi. Jendea, antza, pozik gelditu da. Ni ez hainbeste, baina tira. Nahikoa jende hurbildu da, hoguei bat lagun. Antolatzaileak, Berlingo irakurlea-eta, hain dira gazteak, entusiastak, zahartxo sentiarazi bainaute hainbat momentutan, geroko poeteo laburrean batez ere.

Gaur ere zerbait errezitatu dut hemen. Eta bihar goizean goiz Weidenera joatekoak gara, antolatu diguten itzulpen maratoi horretara.

1. Weideneko itzultzaile tailerraren ekimena Leipzigeiko Unibertsitateko IALT sailak antolatzen du, Etxepare Euskal Institutuaren, Asociación Internacional de Lengua y Literatura Catalana-ren eta Berlingo espainiar enbaxadaren babesarekin.

2018ko urriaren 26a: iritsi eta, maleta hustu gabe, lanean hasi gara, goizeko hamarretan. Katalan poetarekin hasi gara, agian poema laburragoak direlako. Horrek ez dakar erraztasunik batere, berehala egiaztatuko dugunez denok. Kroaziar itzultzaileak huts egin du. Hortaz, gaur, katalanezko poemek alemanezko, italierazko, galizierazko eta euskarazko bertsiok ezagutuko dituzte. Saiok lan hizkuntza katalana izan da gehienbat, denok ulertzen bide baitugu, baita bi alemanek (CS eta CH, Leipzigerako irakaslea eta ikaslea, hurrenez hurren) edo MG irakasle italiarrak ere, gaztelaniazko argitze puntualen bat kenduta. Saio katalanaren gidari eta protagonistak Clara Comas poeta batez ere (gaur itzultzen ari garen poemak berarenak dira) eta, laguntzaile, EB itzultzaile katalana izan dira; lehena, egile moduan, pieza bakoi-tzaren asmoari buruzko azalpenak ematen; bigarrena, azalpen gramatikalagoak-edo.

Berehala ikusi dugu, olerki laburragoak izanagatik, honekin hasteko erabakia hartu duenak ez duela guztiz asmatu. Laburtasunak saioa arindu dezake, barietate gehiago sartu, baina itzultzaileak zeri heldu gutxiago izan ohi du, material faltan. Olerki laburrek esan ohi duten baino gehiago iradoki ohi dute, gehiago eman ohi dute jakintzat. Haien itzulpenean finago ibili beharra dago. Gaurko kasuan bereziki, poetak hitz jokorako joera handia baitu. Maiz, hitz joko horretan oinarritzen da olerkiaren grazia. Susmoa dut poeta arian-arian ohartzen joan dela berak uste baino gutxiago esaten dutela bere poemek (katalanetik kanpo). Horregatik bakarrik balio izan dit gaurko saioak, itzulpenak sorkuntzaren gaineko ezagueran

lagun dezakeela ohartzeko. Tarteka iruditzen zait poeta katalana estualdi batean dagoela. Itzultzaileak ere larri gabiltza, poemak ulertu arren geure hizkuntzetan nola eman asmatu nahian.

Bada *No vagis a l'era* izeneko bat (hitzez hitz, *Larrainera ez joan*), errefrau bati erreferentzia egiten diona bai izenburuan bai olerkiaren azken lerroan: *Qui no vols pols, que no vagi a l'era* (Hautsik nahi ez duena ez dadila larrainera joan).

Inicio la cerca
tornant als mateixos records,
com qui busca les claus
sempre en aquell calaix
i oblida les butxaques.

Les meves van plenes
de la pols de l'era.

Euskarazko bertsiotan, «(erre nahi ez duenak) suarekin ez jolastu» esamoldearen gainean eraiki dugu olerkia. Bukaeran, larrainerako hautsez beteriko poltsiko beteen orde («Les meves van plenes de la pols de l'era»), «errautsez beteta» eman dugu. Euskarak *hauts* eta *errauts* (edo *hausterre*) nahasteko dituen joera hizpidera ekarri dugu, itzulpena (eta hark ekarritako zailtasun eta erronkak) konpartitzeko uanean.

Buruhauste handiagoa eman digu euskaraz (poema izaten jarraituta) itzulezina iruditu zaidan poema batek. Iparraldeko europar neska bati zuzendutako amodiozko poema hiperlabur bat da, *Nòrdica* izeneko: «*Nòrdica, / saps com m'agrades més? // Sense funda*». Hots, bere horretan, biluzik,

mozorrorik gabe. «Zorro gabe». Baina ohe tapakiaren eta iparraldeko neskaren arteko jolasa zaila da gordetzen. Saioak iraun duen tartean, behintzat, ULk eta biok ez dugu lortu.

Bataila galdu batek, beste zelai batean irabazitako beste bataila bat berdindu ez arren, kontsolamendurako balio dezake tarteka. Azkenerako utzi dute *Magranes* izeneko olerkia. Izen zientifikoa *Punica Granatum* duen fruitua gaztelaniazko maileguaz izendatzeko tentazioa saihestu ondoren, deseroso gabilta euskarazko itzultzaileok hiztegiek proposatzen diguten *mingrana* edo *alesagar* hitzekin. Lehenak antz handiegia du egunaren orduotan pizten doakigun buruko minari emanen geniokeen deiturarekin. Bigarrena ezezaguna zaigu guztiz. Nago olerkari batek ezagutu behar dituela erabiltzen dituen hitz guztiak eta haien ondorioak, irakurleari sentsazio jakin zehatz bat helaraziko badio. Komunikazioaren muturretako batek hiztegiara jo behar badu, transmisioak eraginkortasuna galtzen du. Euskarazko sortzailea askotan itsu zaio horri, hitz arazotsuak saihestu ditzaakeelako; itzultzaileak zailago du ezikusia egitea.

Magranes poemak fruitu horren bihiak eta globulu gorriak parekatzen ditu. Azken bi bertsoetan, ideiarri buelta eman, eta «Tinc els glòbuls vermells / plens de m'agrades» amaitzen da, *m'agrades* eta *magranes* hitzen arteko antz fonikoarekin jolas. *Maite zaitut*

bat plural bilakatu eta instrumentala gehitzen ahal zaio? Behin-behinean, «Globulu gorriak / maitemingranez beterik ditut» euskaratzea erabaki dugu eta, hortaz, poemaren izenburua, ez granada ez alesagar, *Mingranak* baizik eman.

Arratsaldeko zortzietan utzi dugu. Kanpoan, ia arratsaldeko saio guztian zehar ilun egon da.

2018ko urriaren 27a: galegoaren eguna da gaur. Lucia Aldao poetaren lanaren txanda. Atzo egindakoak eta gaurkoak ez dute zerikusirik. Ezinago kontrakoak ematen dute bi poetek. Olerki luze eta berbatiak, askotan zerrendatzeetan oinarrituak. Luciak irakurri dizkigu, eta ia trantzean sartu gara. Salmodikoak dira, ozenki entzunak izateko oso egokiak, irudi dirdiratsuz beteak. Atzokoarekin konparatuta, oso zailtasun ezberdinekoak. Tonua aurkitu, prosodia luzeak izan dezakeen menderakuntzaren mendekotasuna detektatu, euskaraz ere haria ez galtzeko tresnak eskaini poemari eta jatorrizkoa bezain liluragarria izateko bitartekoak ematen saiatu.

Lehen poemak ia ehun lerro ditu, baina funtsean esaldi bakar bat du ardatz. *É enfermizo* du izenburua. Ondoren datorren gehiena perpaus konpletiboak dira. Euskara natural eta erabili batean emateari lehentasuna emanez, erabaki dugu *Gaixotzen nau* erabiltzea. Hona hemen poemaren azken hamar lerroen itzulpena:

Gaixotzen nau zuk ni nahiago izateak eta are gehiago
nik zu izateak nahiago.

Gaixotzen nau ez hanka ez buru
etxera joan beharrak,
gaixotzen nau etxera joan beharrak.
Gaixotzen nau 40 gramoko sukarra
infernuko tiraderan zuk gordetzeak,
nire nerabezaro gaixoberaren ondo-ondoan.

Eta orain ni izateak
aldamioetatik deitzen dizuna.

Lehen poema horrek badu, halere, atzo
hainbeste buruhauste ekarri ziguten hitz jo-
koetarako lekua ere. «*Incendiariamente* tua»
sintagmak itzulpenari gatz eta piper pixka
bat ematen dio («*hezegunero zurea*», eman
dugu). Poema beraren beste pasarte batean,
Nathaniel Hawthorne-ren *The Scarlet Let-*

Nacín disfrazada de persoa,
cun dominio imbécil de adxectivos
e feridas gravísimas en nomes abstractos.
Tardeí tres ou mil anos en durmir
por crear este personaxe que saúda en forma de cesárea.
A miña letra “*escarlatina*” no nacemento do corpo.
Que ben acolledes o meu odio.

Gaueko zortziak arteko orduak Lucia
Aldaoren beste bizpahiru poema itzultzen
eman ditugu, haren umore ona gidari dugu-
la. Poemetako batek izenburu duen *A raíz
do toxo verde* esaldiaren nondikoa azaldu
digu (Galizian oso ezaguna den abesti he-
rrikoi baten hasiera da), kanta abestuz, eta
iradoki digu izenburua bere horretan uzte-
ko. Poetari ez zaio hagin berdearen sustraia

É enfermizo que me prefiras e é aínda máis enfermizo
que eu te prefira a ti.

É enfermizo que teña que marchar para casa
sen pés nin cabeza,
é enfermizo que teña que marchar para casa.
É enfermizo que gardes corenta gramos de febre
no caixón do inferno,
xusto ó carón
da miña adolescencia enfermiza.

E que agora sexa eu
a que te reclama nos andamios

ter-aren erreferentzia eta eskarlatina gaixo-
tasuna gurutzatzen dira. Euskaraz, *Strepto-*
coccus pyogenes bakterioa alde batera utzi eta
paramixobirusen eremuan sartu behar izan
dugu, poetaren baimenarekin, Hawthorne-
ren *letra gorrimin*ak gorritasuna eta mina
gorde ditzan.

Pertsona moztarra jaio nintzen,
adjektiboak jartzeko dohain baboarekin,
izen abstraktueta larriki zauritua.
Zesarea itxuran diosala egiten duen pertsonaia sortzeko
hiru edo mila urte behar izan nituen lotan.
Nire letra “*elgorria*” gorputzaren sorburuan.
Zer ondo hartzen duzuen nire gorrotoa.

(inoiz ez du halakorik ikusi) ardura, kan-
ta ezagun horrek entzuleari ekartzen dion
oihartzuna baizik («*A raíz do toxo verde e
moi mala de arrincar-e. Os amorios pri-
meiros son moi malos de olvidar-e*»), batez
ere bigarren zatiarena: lehen maiteñoak zai-
lak dira ahanzten. Olerkia horri buruzkoa
izan daitekeelako susmoa galduko du euskal
irakurleak, kanta ezagutu ezean. Itzultzaile

axolatu egia euskal kantagintzan baliokidea bilatzeko tentazioa izan lezake (gero testuan berriro agertzen ez dela eta, hortaz, interferentzia gehiagorik sortzen ez duela aprobeztatuta), baina egilearen berariazko nahia ezin ezikusia egin.

EB itzultzaile katalanak azkenean ulertu du Bartzelonako bere etxetik gertu den jate-txe galiziar baten izenaren nondik norakoa: *O Toxo Verde*, Independentzia kalean. Orduak, goseak eta kalearen izenak afaria eta afalondoa arindu dizkigute.

2018ko urriaren 28a: gaur nire poemak itzuli behar dituzte. Hor ari dira. Tartetxo bat hartu dut hau idazteko. Pixka bat arraroa da. Niri behintzat deserosotasun puntu bat ematen dit, irakurria izatearen lotsa ohikoagoari gehitzen baitzaio «zuretzat» lanean ari den jende talde bat ikustearena, zu ulertzen saiatuz, azalpen eske, zuri bururatu gabeko arazoei aurre egin beharrez. Lerro artean esandakoa esplizitatzera behartzen zaituzte. Ez da terapia txarra.

Nireari heltzeko orduan, euskarazko eta gaztelaniazko bertsiok dituzte aurrean. CH alemanak euskara pixka bat badaki, ez guztia ulertzeko adina, baina bai bertsiok batetik bestera (jatorrizkotik gaztelaniazko nire itzulpena) egon daitezkeen aldeak atzemateko. Dena den, itzuli beharreko poema irakurri ondoren, lehenengo euskaraz eta ondoren gaztelaniaz, bataren eta bestearen arteko desberdintasunak azaltzen dizkiet. Aldea handia denean, euskarazkoaren hitzez hitzekoa ematen diet, eta askotan apuntatzen dute, nik gaztelaniaratzeko orduan ezin izan nuena haiek beren hizkuntzetan lortuko dutelakoan. Kronika hau besteek eginen

balute, aldi berean ezin ulertzeko jatorrizko batetik eta hurbilago zaien bertsiok autorizatu batetik abiatu beharra nabarmenduko lukete, eta horrek dakarren kontraesan sakonduko. Autoitzulpenaz arituko lirateke. Erro itzultzaileak Erro egileaz ezkutatu eta erakutsi nahi duenaz. Ez dagokit niri.

13. Garai Heroikoak poeman, opari bat prestatu uste diet, tranpatzat har dezaketena. Aitortu diet olerkiaren erdian txertatutako euskarazko haikuak ez duela gaztelaniazkoarekin zerikusi handirik. Garrantzitsuena ahalik eta haiku tipiko eta topikoena egitea da gakoa, fenomeno atmosferiko bat (euria, elurra...) aipatuta. Pausa bat, atsedendaldi poetiko bat baino ez da olerkiaren ibileran. «Bedats euria; / parkea loratu da / aterki beltzez». «El cielo luce / nuevas estrellas. Nieva / sobre el paraguas». Haikuen metrika gorde behar dute. Nire beste poema batzuetan ere neurria egoten da (ez beti gaztelaniazko itzulpenetan). Kasu handirik egin ez badiate ere, tarteka mesedez horretan ez tematze eskatu arren, nire ustez komeni baino ahalegin handiagoa egiten dute alemanez, italieraz, katalanez eta galegoz ere metrika gordetzeko. Lucia Aldaok baimena eskatu dit behin baino gehiagotan itzulpenean lizentzia bat edo beste hartzeko, beraren ondoan lanean den SLR Leipzigecko Unibertsitateko galiziera-irakurlearen desespe-raziorako, poeta galegoa jatorrizkotik urrundu eta bertsiok poetikoa bilatzen ari baita, berea, bere doinura egokitua. Beti baiezkoa ematen diot, sinetsita bainago poesia-itzultzaileak poeta behar duela, ez ezinbestean, baina bai aukeran.

Ez ditut emaitzak bildu. Guztiak entzun bai, baina hain lotsaturik non ez baitut hi-

tzik atxiki. Ordu batzuk igarota, irudipen lauso bat baino ez dut: inoiz idatzi dudan onena galizierazko soneto bat izan dela, agian inoiz jasoko ez dudana. Hitzak galdu dira, irudipenak dirau.

2018ko urriaren 29a: eserita nago aireportuko pantaileri begira. Ordenagailua ateratzea erabaki dut. Abisuek diote hegazkina atzerapenez aterako dela, oraindik onargarria zaidan baina prebentzioz luzeagoa irudikatzen dudan atzerapenez. Ia esaldiari begiratzen diot pantailari, berri eske. Asteburua landetxe batean itxita eman dut, ezertarako atera gabe, poesia itzultzeko tailer batean, ofizio bakartia partekatzeko poz arraroaz. Munduari azken egunotan gertatu zaionaz ere atzerapenez enteratzen ari naiz orain, luzeagoa izatea axola ez lidakeen atzerapenez, egunerokora itzultzearen malenkonia arraroaz.

2018ko urriaren 30a: Alemaniatik itzuli naiz. Hango hotzarekin konparatuta, hemengo edozein hotzaldi iruditzen zait epel. Oso ongi etorri zait asteburu luze osoan zehar deskonexioa. Estresa berehala berreskuratu banuen ere, hurrengo egunean, hau

da, atzo, trenetik trenera eta, hortik, korrika batean, aireportura, non atzerapenengatik eta nire eskuko maletatxoa bodegan sartzeagatik eragozpenengatik bi orduko atzerapenez iritsi bainintzen etxera. Maleta desegin, dutxatu, eta operara joan behar izan nuen, *Only the sound remains* izeneko obra garaikidea, bi abeslariarekin (haietako bat Philippe Jaroussky kontratenorea). Une batez lokartu nintzen, atonalitatearen kulunkan.

Barajaseko aireportuan, atzo egiaztatu ahal izan nuenez, langile laguntzaile bat paratu du autobusen udal enpresa publikoak, bus geltokiaren ondoan, behar duenari informazioa emateko. Logikoaenez zerbitzua gehien baliatuko dutenak atzeritarak izan arren, atzo arratsaldeko langileak ez daki ingelesez. Tipo jatorra ematen du. Niri irribarre batez argitu zidan errotuluan *Cibeles* jarri arren Atocha tren geltokiraino iristekoa zela busa. Baina ez zuen irudipen bera hartuko galdera erraz bat behin eta berri egiten saiatzen ari zitzaion gizon itxuraz indiarak. Langilea keinuka ahalegindu zen, motelago hitz eginez, jokatu gabeko aditzak erabiliz gaztelaniaz; alferrik.

Errealitateak brau atera ninduen heldu naizen paradisu eleaniztunetik.

Resumen

Entre el 26 y el 28 de octubre de 2018 Ángel Erro participó en Weiden, junto con poetas y traductoras y traductores de otros países, en un taller de traducción organizado por el departamento IALT de la Universidad de Leipzig, con el apoyo del Instituto Vasco Etxepare. El autor narra la experiencia de traducir durante esos días la poesía de otros autores y la de colaborar en la traducción de la suya propia.

Résumé

Du 26 au 28 octobre 2018, Ángel Erro participa à Weiden avec d'autres poètes et traducteurs à un atelier de traduction organisé par l'institut IALT de l'Université de Leipzig, avec le soutien de l'Institut basque Etxepare. L'auteur raconte ici son expérience : comment il a traduit la poésie d'autres auteurs et comment il a collaboré à traduire ses propres poèmes.

Abstract

From October 26 to 28, 2018, Angel Erro took part, together with poets and translators from other countries, in a translation workshop held in Weiden and organized by the University of Leipzig's IALT in collaboration with the Etxepare Basque Institute. The author tells about his experience translating the poetry of other authors and about collaborating in the translation of his own work as well.